

# Herrian zer berri?

2024ko Ekaina

eh  
bildu  
**Laz  
kao**



\* **Legaldi berriko lehen urtearen balantzea**

Balance del primer año de la nueva legislatura

\* **Hauteskundeak**

Elecciones

\* **Palestinako genozidioaz mozioak**

Moción sobre el genocidio de palestina

\* **Zergak eta tasak**

Impuestos y tasas

\* **Inbertsioak**

Inversiones

\* **Kirol alorrerako dekalogo bat  
ontzen ari da udaleko kirol batzordea**

La comisión de deportes  
elabora un decálogo para el ámbito deportivo



aldizkariko berriak  
errazago eta sakonago

# Legealdi berriko lehen urtearen balantzea

## Balance del primer año de la nueva legislatura

Hautetsontzietan pareko emaitzarekin eman genion hasiera duela urtebete legegintzaldi berriari. 28 boto eskaseko abantailarekin PNVK 7 zinegotzi lortu zituen, eta 6rekin gelditu ginen gu. Hain emaitza estuaren aurrean lankidetzarako eta ardurak banatu beharra sentituko zutela pentsatu genuen, eta zentzu horretan, lehen egunetik eskua luzatu diegu elkarrekin legegintzaldiko proiektuak lantzeko: programan amankomunean ekarri genituen hainbat gairekin hastea proposatu genien (Lazkaomendiko oinezko bidea, Katilusoro - Gurutzeko meandroi; Hirigoieneko perretxikoaren birgaitza...), legegintza osoak irauango duen lau urteko epeari begira baliabideen aurreikuspena egin, eta plangintza horren inguruan urteroko inbertsio aurrekontuak eratzea zen gure proposamenaren muina. Segituan jaso genuen lehenengo ezezkoa. Euren funtzionamenduan ez da sobrare, urtebetetik gorako plangintzarik kabitzen. Eta hori beraien hauteskunde programan 20 urtean beteko ez diren eraikuntza-<lanak agintzen zizkiotela herriari...

Baina ia lazkaotar erdien botoa jasotzeak aitortzen digun posizioa beste bat dela irmoki sinistuta, behin eta berriro eskatu diegu bilera baterako deialdia, aurrerantzean bi alderdion arteko harreman eta lankidetzaren ereduaren izango den argitze aldera... eta urtebete pasatzen honetan, oraindik ere zain gaude.

Bilerarik ez dugu egin, ez. Baina ekintzen bidetik argi utzi du hilabete hauetan PNVK bere lankidetzaren ereduaren: ez dute gure iritzirik behar proiektu bat edo bestea lehenesteko orduan.

Ezta proiektuen baitan aukera ezberdinak aztertzeko edo alternatibak bilatzeko ere. Kasurik eskuzabalenean, dagokion komisioan aurkezten dituzte, modu informatibora, beraiek teknikarien laguntzarekin azken muturreraino landu dituzten proposamenak. Duela aste pare bat espreski aitortu ziguten proiektu hauetan esaldiren bat egokitzeko aukera emango digutela, baina ez dagoela bere asmoen artean sakoneko aldaketak onartzerik. Esan dugun bezala, gure ustez ez da hau berdinketa baten ondoren sortutako erakunde batek behar lukeen antolaketa eredu.

Baina gauza ez da hor amaitzen. Bitarte honetan, **harrokeria eta prepotentzia**zko jarrera hori hitzetan ere islatzen joan dira: errespetu falta nabarmenaz, komisio eta osoko bilera askotan entzun behar izaten ditugu mespretxuzko hitzak: etxekaltek, arduragabeak gabela; arinkeriaz jokatzeko dugula; ez dugula lanik egin nahi... Sálvame moduko programak gustuko dituzuen herritarrei osoko bilkuretara bertaratzeko gonbita egiten dizuegu, bermatua baitago mota horretako ikuskizuna azken hilabeteotan alkatearen eta bere alderdikide batzuen aldetik.

Tira, espero dezagun udako oporretan urduritasun eta tentsioak baretuko direla, eta datorren ikasturtea alderdi hobeearekin hasiko dugula. Gure aldetik, **lankidetzarako eskaintzak bere horretan jarraituko duen bermea** ematen diogu PNVri. Hori bai, aldi berean, **egoki ikusten ez ditugun portaerak salatzen jarraituko dugula** ere hitz ematen dizuegu lazkaotarrei.



Iniciamos hace un año la nueva legislatura con un resultado ajustado. Una diferencia de 28 escasos votos proporcionaba al PNV 7 concejales y 6 a EH Bildu. Con tan ajustado resultado, pensamos que se sentirían llamados a colaborar y a compartir responsabilidades, y en este sentido, desde el primer día **les extendimos nuestra mano para desarrollar los proyectos de la legislatura**: les propusimos partir de aquellos proyectos que compartíamos en ambos programas (camino peatonal de Lazkaoendi, el meandro de Katilusoro-Gurutze; rehabilitación del “champiñón” de Hirigoien...), hacer una previsión de recursos de los cuatro años que abarcará esta legislatura. Nuestra propuesta consistía en distribuir dichos recursos económicos en los cuatro años. En breve recibimos **la primera negativa**. Su funcionamiento, por lo visto, no contempla planificaciones superiores al año. Y eso que en su programa electoral prometían al pueblo obras de construcción que no se cumplirán en 20 años.

No obstante, convencidos de que los votos de casi la mitad de los y las lazkaotarras es otra, **hemos solicitado** por activa y por pasiva **una reunión entre ambos partidos, para acordar cual será la relación y el modelo de colaboración entre los dos partidos...** y un año más tarde, seguimos a la espera.


No hemos hecho ninguna reunión, no. Pero a través de sus acciones **nos han dejado claro cuál es su modelo colaborativo**: no necesitan nuestra opinión para priorizar uno u otro proyecto. Ni para estudiar y buscar las diferentes alternativas dentro de un mismo proyecto. En el caso más

generoso, presentan las propuestas en su comisión correspondiente, a modo informativo, habiendo desarrollado los proyectos hasta el final con la ayuda de los técnicos. Hace un par de semanas nos reconocieron expresamente que **podremos modificar alguna línea en estos proyectos, pero que no cabe en sus planes aceptar cambios sustanciales en los mismos**. Como hemos dicho, entendemos que no es este el modelo organizativo a seguir por una institución formada por prácticamente un empate.

Pero la cosa no acaba ahí. Entre tanto, **esa actitud chulesca y prepotente la han ido expresando en sus palabras**: con notoria falta de respeto, a menudo tenemos que escuchar palabras de desprecio: pródigos que traemos la ruina a nuestra casa, que somos irresponsables; que actuamos “a la ligera”; que no queremos ejercer nuestras funciones... Os invitamos a los y las lazkaotarras que os gusten los programas del tipo de Salvame a asistir a los plenos municipales. En ellos tenéis garantizado ese tipo de espectáculos estos últimos meses por parte del alcalde y algunos/algunas de sus compañeros/compañeras de partido.

Bueno, esperemos que estas vacaciones estivales sirvan para aplacar los ánimos y las tensiones, y que iniciemos el próximo curso político con mejor talante. Por nuestra parte, garantizamos al PNV que **nuestra oferta para colaborar seguirá como hasta ahora**. Eso sí, al mismo tiempo, también os prometemos a los y las lazkaotarras que **seguiremos denunciando aquello que nos parece inadecuado**.

## Hauteskunde hauteskunde 2023/2024



# Hauteskundeak Elecciones

Itxi berri dugu hauteskunde-ziklo luze samar bat, eta datozen hiru urteetan, ezustekorik ezean, ez guke hauteskunderik izan behar. Badakigu, ordea, politikan ez dagoela jakiterik! Hauteskunde ziklo hau, 2023ko Batzar Nagusietakoekin eta Udal hauteskundeekin hasi zen, eta hil honen 9an egin ditugun Europakoekin amaitu da. Tartean izan ditugu Diputatuen Kongresuko (Espainiako) hauteskundeak (2023ko uztaila) eta Legebiltzarrekoak ere (2024ko apirila).

Guztira, lau hitzordutan, bost hauteskunde-aldi izan ditugu Lazkaon. **Eta emaitza bikainak izan ditu EHBilduk: bat izan ezik guztiak irabazi ditu**, eta lerro hauen bidez herriko boto-emaitza fideltasuna eskertu nahi dugu, eta gure proiektura batzen joan zareten guztiei ongi etorri beroena eman.

**EHBilduren hazteko joera hori, gainera, gure herrian -Lazkao- ez ezik, Euskal Herri osoan ari da finkatu eta sendotzen.** Etorkizun oparoa du gure egitasmoak, gure herriaren etorkizunarekin batera.

Acabamos de cerrar un largo ciclo electoral, y los próximos tres años, salvo sorpresas, no deberíamos tener elecciones. ¡Sin embargo, sabemos perfectamente que en política nunca se sabe! Este ciclo electoral comenzó con las de Juntas Generales y municipales en 2023, y ha finalizado con las europeas de este año. Han completado el ciclo las del Congreso de Diputados (España, julio de 2023) y las del Parlamento Vasco (abril de 2024).

En total, en cuatro citas electorales, hemos tenido cinco elecciones en Lazkao. **EHBildu ha obtenido unos excelentes resultados: ha ganado todas excepto una de ellas, y a través de estas líneas deseamos agradecer la fidelidad de nuestros electores, y, así mismo, daros nuestra más cordial bienvenida a todos y todas las que os habéis ido sumando a nuestro proyecto.**

Además, esta tendencia al alza de EHBildu no se está produciendo exclusivamente en nuestra localidad, sino en toda Euskal Herria. Auguramos un futuro productivo a nuestro proyecto, junto al futuro de nuestro pueblo.

2024ko maiatzaren 30ean, EHBilduk Palestinaren aldeko mozioa. Berandu aurkeztu zela eta ez zuen onartu PNVk osokoan sartzerik. Hala ere, negoziatzen hasita geunden, kontramozio bat aurkeztua baitziguten. Guk, itsuskeria iritzi arren (geureari ekarpenak egin ordez berena aurkeztea), errazago onartuko zelakoan, berenari ekarpen pare bat egina genion. Osokoan sartzerik onartu ez eta bozeramaileari itzuli zion PNVk zuzenketa-proposamen batzuekin. Erantzuna lantzen ari ginela, hara non argitaratzen duen alkateak Udalaren adierazpen instituzionala aldebakartasunez. Hori bai, bere pentsakera ondo nabarmenduz: Hamasek 2023ko urriaren 7an egindakoari “eraso terrorista gordinek (gaitzesgarriak, onarteziak eta gaitzesgarriak)” deitzen diote, eta Israel Gazan egiten ari dena, genozidioa ez, baizik eta “biztanleria zibil palestinarraren aurkako eraso indiskriminatu eta kolektiboak” dira.

30 de mayo de 2024, moción de EHBildu en defensa de Palestina. El PNV se negó a aceptarlo como tema a tratar en el pleno, por haberlo presentado fuera de plazo. Sin embargo, ambos partidos estábamos negociando, porque el PNV nos había presentado una contra moción. Nosotras, a pesar de considerarlo un gesto feo (el hecho de que, en lugar de hacer propuestas sobre la nuestra, contrapusieran su propia moción), pensando que sería más fácil que prosperara, insertamos un par de aportaciones a la suya. Votaron en contra de que fuera tratada la moción en el pleno y devolvieron su contra moción con nuestras aportaciones a nuestro portavoz, proponiendo unas correcciones. Estábamos discutiendo entre nosotros si apoyábamos o no dicha contra moción, cuando el alcalde, de forma unilateral, publico una declaración institucional. Eso sí, dejando clara su forma de pensar: a la ofensiva del 7 de octubre de Hamas, llaman “cruentatos ataques terroristas de Hamas del 7 de octubre pasado contra población civil, condenables, inadmisibles y repudiables” y se niega a denominar “Genocidio” el que está llevando a cabo Israel en Gaza, llamándolo “ataques indiscriminados y colectivos contra la población civil palestina”.

# Palestinako genozidioaz mozioak

## Moción sobre el genocidio de palestina



# Zergak eta tasak

## Impuestos y tasas

Gai hau udal-gobernuan dagoen taldearen ohiko dinamikan salbuespena izan ohi da. Izan ere, honetarako bai, honetarako bilatzen dute gure adostasuna.

2024ko aurrekontuak bakarrik landu ditugu indarrean dagoen legealdi honetan. Aurrekontuekin hasi aurretiko urratsa izan ohi da zerga eta tasak finkatzea. Jakinaenez, haiek izango dira udal aurrekontuen finantza-iturri nagusietakoa transferentzia arruntekin batera. Zehazki, Lazkaoko udal-aurrekontuen sarreren atalaren % 40,77 dator udalak kobratzen dituen zerga eta tasetatik; gainerako % 59,07 transferentzia arruntetatik, eta horietan zatirik garrantzitsuenak (% 95 pasatxo), foru-funtsetik dator, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalak finantzatzeko darabilen iturritik, alegia.

Zergak eta tasak zehazteko proposamenarekin batera, haiek ordaintzen laguntzeko hobiaiak eta dirulaguntzak zehazten dira. Lazkaoko udalak LGS (lanbidearteko gutxieneko soldata) oinarri duen taula baten bidez ematen dizkie laguntzak eta hobiaiak zergadun zaugarrienei, diru-iturri eskasena dituztenei. **EHBilduk hutsune handi bat ikusi zuen laguntza eta hobia horien artean: kiroldegiko zerbitzuengatik eta kultur ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ez ziren lagun zitezkeen edo hobaritu zitezkeen atalen artean sartzen.** Gogoan genuen Usurbilgo alkate andreak, Agurtzane Solabarrietak, zinen hunkituta kontatu zigun udal-laguntzei esker lehenengo aldiz igerilekura haurrak eraman ahal izan zituen emakumearen eskerrena. **Horixe proposatu genion udal gobernari**

**guk ere zerga eta tasak onar genitzan:** haiek ordaintzen laguntzeko diru-sailek kiroldegiko eta kultur alorreko ordaingaiak ere kontuan hartzea. Onartu zuen, eta, ondorioz, guk ere bai zergen eta tasen banaketa.

Egun dugun kezka, horietara iritsi ahal izateko izapideak oso konplikatuak direla eta behar baino gutxiago direla laguntzen onura jasotzen dutenak. Joan den maiatzeko Nabarmenetan gogorarazi genizuen lazkaotarroi guztion eginkizuna dela estualdian ikusten ditugunak dagokien leihatilara bideratzea.

Edozein modutara, esan dugun bezala, zergak eta tasak aurrekontuen zati bat dira, urtero eguneratu behar direnak. Baina aurrekontuak eurak landu daitezke urtebeteko ikuspegi murriztetik, edo urte anitzeko ikuspegi zabalago batetik. Gure ustez, bigarren aukera hau askoz egokiagoa da herritarrongan eragina izango duten ekintza eta proiektu handiak planifikatzeko, aurrekontu hauen zenbatekoak, udalak lehendik egindako eragiketen ondorioz izan daitezkeen diru soberakinak gehituta eta ordainketa konpromisoak kenduta kudeatzeko aukera ematen baitigu. Zoritxarrez, PNVk nahiago du planifikaziorik gabe (eta planifikazioak berarekin dakartzan konpromisorik gabe) guztion baliabideak kudeatu, proiektuak loturarik gabe, unean bertan bururatzen zaizkion eran garatuz.

Arlo honetan ere gure postura defendatzen jarraituko dugu oporretatik bueltan.

Este tema suele ser una excepción en la dinámica habitual del gobierno municipal. Y es que, en este tema sí, en este tema sí que buscan un acuerdo con EHBildu.

En la actual legislatura únicamente hemos elaborado los presupuestos de 2024. Antes de discutir los presupuestos, se determinan los impuestos y tasa municipales. Como es sabido, estas serán la fuente principal de ingresos de los presupuestos municipales, junto a las transferencias comunes. Concretamente, un 40,77 % del capítulo de ingresos de las cuentas municipales proceden de los impuestos y tasas que cobra el consistorio; el 59,07 restante proviene de las transferencias comunes, cuyo capítulo principal es el fondo foral (supera el 95 %), es decir, de la vía que dispone la Diputación Foral de Gipuzkoa para financiar los ayuntamientos.

Acompañan a la propuesta de determinación de impuestos y tasas, las bonificaciones y subvenciones que ayudan a pagarlas. El ayuntamiento de Lazkao calcula las ayudas a los contribuyentes en situación más vulnerable, a aquellos que disponen de menores ingresos, basándose en una tabla que recoge el SMI (salario mínimo interprofesional). **EHBildu observó una importante carencia entre dichas bonificaciones: las tasas a abonar por los servicios del polideportivo y los cursillos culturales no se contemplaban como tasas subvencionables.** Recordábamos perfectamente la emoción con la que nos narra la señora alcaldesa de Usurbil, Agurtzane Solabarrieta, el agradecimiento de una mujer que había podido llevar a sus hijos a la piscina municipal gracias a este tipo de bonificaciones y subvenciones. Esa fue la condición que impusimos al gobierno municipal para que EHBildu aceptara sus tasas e impuestos: que incluyera las ayudas para abonar las tasas culturales y del polideportivo. Lo aceptó, y, en consecuencia, nosotros aprobamos las tasas e impuestos municipales.

Ahora nos preocupa que, debido a los complicados trámites para poder disfrutar de ellos, son menos de los que deberían los beneficiados reales. En Lo + destacado del pasado mes de mayo os recordábamos que es obligación de todos los y las lazkaotarras dirigir a la ventanilla correspondiente a quien vemos en apuros.

De todas formas, como hemos dicho, las tasas e impuestos son una parte de los presupuestos, una parte a actualizar anualmente. Pero los presupuestos se pueden elaborar con una perspectiva limitada de un año, o con una plurianual, más amplia. Entendemos que esta segunda opción es más adecuada para diseñar proyectos de envergadura que incidan en los y las ciudadanas, porque nos ofrecen la posibilidad de gestionarlos sumando los excedentes de ejercicios anteriores y restando los compromisos adquiridos. Desgraciadamente, el PNV prefiere gestionar los recursos económicos de todos y todas sin planificación alguna (ni los compromisos que abarca la planificación), desarrollando los proyectos como se le antoja, sin una continuidad.

Continuaremos defendiendo nuestra postura también en este ámbito a la vuelta de vacaciones.



# Inbertsioak

## Inversiones

Udalak lazkaotarroí egin berri dugun aurrekontuetan parte hartzeko proposamenean, **inbertsioetara bideratutako ideiak bakarrik hartuko direla kontuan azpimarratu dute.**

Ez dakigu zer ulertu behar dugun zehazki horrekin: hormigoietan inbertitzea bakarrik hartuko dela kontuan?

Ez al dira inbertsioak, adibidez, lazkaotarrak kulturari jantziago egitera bideratzen diren ikastaroak eta emanaldiak?

Ez al dira inbertsioak baso-lurren erosketak, herriak CO2 xurgatzeko landaretza nahikoa izan dezan?

Eskatuko ditugu argibideak eta zehaztasunak dagokion lekuan.

En la reciente propuesta de participación que ha abierto el ayuntamiento a los y las lazkaotarras, han subrayado que **únicamente se considerarán aquellas aportaciones hechas en el ámbito de las inversiones.**

No sabemos qué debemos entender con ello exactamente:

¿inversión es solo lo que va destinado a hormigón?

¿No son inversiones, por ejemplo, los cursillos y actuaciones destinadas a hacer más cultos a los y las lazkaotarras?

¿No es una inversión la adquisición de terreno forestal, para que nuestro municipio disponga de suficiente vegetación para absorber el CO2? Pediremos las pertinentes aclaraciones donde procede.

Urte honetan udalak egin dituen inbertsioen berri eta haiekiko guk izan dugu jarrera azalduko dizuegu lerro hauen bidez:

A través de estas líneas os queremos informar de las inversiones que ha hecho el ayuntamiento y la posición que ha adoptado ante ellas EHBildu:

## Kiroldegia

Gaur egungo gizarteak nekez irudikatzen du kiroldegirik gabeko herririk. EHBilduk ere bat egiten du ideia horrekin: kiroldegia behar-beharrezko zerbitzua da gure udalerrian.

PNVk 5 milioi inguruko proiektu bat aurkeztu zuen kiroldegia berritzeko. Berritze hori, gaurko kiroldegiari adabakiak jartzean datza: kiroldegia dagoe-nean utzi eta haren ataletan beharrezkoak diren hobekuntzak egin.

Eta EHBildun galdera bat sortu zitzaigun: zer da errentagarriagoa beste hamar bat urterako adabakiak egin eta aurpegi garbiketa bat egitea zaharrari, ala, behingoz, eraitsi eta berria eraikitzea? Bost milioiko adabaki asko gabe ordainduko litzateke kiroldegi berria ere (10, 15 milioi?). Seguru!

Galdera guztiz zentzuzkoa iruditzen zaigu. Orduan, udalerrri guztiek beren hiri-antolamendua egiteko duten tresna erabilgarrienaz oroitu ginen HAPoz (hiri antolamenduko plan orokorra). Halaber oroitu ginen, hamar urteko atzerapena daramala Lazkaoko Udalak HAPO berria diseintzeko: aspaldi egin behar zuela. Eta iruditzen zaigu plan horrek lagunduko digula kiroldegiaren inguruan ditugun galdera guztiak erantzuten.

Zentzugabekeria deritzogu bost milioiko inbertsioa HAPoren aurretik egiteari. Eta horixe ari da izaten gure jarrera kiroldegiaren gaia osokora edo gobernu-batzordera iristen den bakoitzean: abstenitzea. Ez kiroldegiaren aurka gaudelako, udal-gobernu hau egiten ari den baino hobeto egin zitekeela uste dugulako baizik.



El polideportivo es un servicio muy importante en el pueblo. La sociedad actual, apenas puede imaginar un municipio sin polideportivo desde el punto de vista del bienestar. EHBildu se suma a esa idea: el polideportivo es un servicio imprescindible en Lazkao.

El PNV presentó un proyecto que rondaba los cinco millones de euros para renovar el polideportivo. Dicha renovación consiste en poner parches al polideportivo actual: mantener el polideportivo tal y como está y hacer las necesarias reformas en sus secciones.

En EHBildu nos surgió una pregunta: ¿qué resultaría más rentable hacer parches para otros diez años aproximadamente, lavándole la cara al antiguo, o, derribar de una vez el antiguo y construir uno nuevo? Seguro que se podría construir uno nuevo sin muchos parches de 5 millones (¿10, 15 millones?).

Nos parece una pregunta absolutamente pertinente. Entonces, nos acordamos de la herramienta principal de que disponen todos los ayuntamientos para ordenar urbanísticamente su territorio, el PGOU (el plan general de ordenación urbanística). Así mismo, nos dimos cuenta de que lleva un retraso de 10 años el ayuntamiento de Lazkao en la elaboración del nuevo PGOU: que hace tiempo que debía estar hecho. Y nos parece que ese plan nos ayudará a responder todas las preguntas que se nos ocurren en el tema del polideportivo.

Consideramos un sinsentido hacer una inversión de 5 millones de euros antes de elaborar el PGOU. Y esa es la postura que estamos adoptando cada vez que surge un tema relacionado con el polideportivo a la Comisión de Gobierno o al pleno municipal: nos abstenemos. No porque estemos contra el polideportivo, sino porque creemos que se podría hacer mejor de lo que lo está haciendo este gobierno municipal.

## Komendradi

Komendradi baserria Lazkaoko eremu estrategiko batean kokatua dago: futbol-zelaiaren eta igerileku estaligabearen artean. Jabeek saltzeko asmoa zutela jakin zuen udalak. Baina udal batek ezin du horrela eta horrela lur-sail bat erosi, deialdi publikorik egin gabe. Alegia, ezaugarri jakin batzuk dituen lur-sail bat erosteko interesa agertu behar du (non kokatua, zer hedaduratakoa, zer ezaugarri dituen...), deialdi bat egin behar du horrelakorik inork saldu nahi dion, eta saldu nahi dionari erosi.

Horrela egin du prozesua Lazkaoko udalak. **Eta lortu du baserria eta bere lur-sailak bereganatzea. Prezioa 640.136,17 eurokoa izan da.** Une honetan udalaren izenean eskritura publikoak eginak daude.

**EHBilduk baiezeko botoa eman du, erosketa honen aldekoa.**



El caserío Komendradi se ubica en un lugar estratégico de Lazkao: entre el campo de fútbol y la piscina descubierta. El ayuntamiento supo que los dueños deseaban venderlo. Sin embargo, un ente administrativo no puede comprar un terreno por las buenas sin hacer la correspondiente convocatoria pública. Es decir, deben mostrar interés por comprar un terreno de características concretas (donde se ubica, que extensión debe tener, qué características...), tiene que hacer una convocatoria pública para ver si alguien desea venderle un terreno con dichas características, y, en caso afirmativo, comprárselo a quien se lo desee vender.

Así ha sido el proceso de compra de Komendradi por parte del Ayuntamiento de Lazkao **y la operación de compra del caserío y sus terrenos ha sumado 640.136,17 €.** En este momento ya ha sido escriturado a nombre del Ayuntamiento de Lazkao.

**EH Bildu votó favorablemente por la compra de este caserío.**

## Biona ondoko lur-saila

### Terrenos colindantes a Biona

Biona inguruko lur-sail bat, Bionaren lurrek, fraileenek eta Gaztainandi baserriarekin mugatua, **bi jaberena zen: udalarena (% 52-edo) eta Dukea tarteko zuen sozietate merkantil batena.** Bigarrenak lehenengoari jabetza saldu nahi zuela adierazi zion. Hor beste bat izan da prozedura, udala jada erdiaren baino gehiagoren jabe zelako.

Hori ere bereganatu du udalak. Orain lur-sail osoaren jabe da.

**Erosketa-prozesu honetan ere baiezeko botoa eman du EHBilduk.**

Un terreno colindante con Biona, que además colindaba con terrenos de los frailes y del caserío Gaztainandi pertenecía a dos propietarios: al Ayuntamiento de Lazkao (un 52% aproximadamente) y a una sociedad mercantil perteneciente, entre otros, al Duque. Este segundo propietario expresó al primero su deseo de vender su parte. En este caso ha sido otro el procedimiento, por ser el ayuntamiento propietario mayoritario del mismo.

Este terreno también ha sido adquirido por el ayuntamiento. **Ahora es su único propietario.**

**EHBildu también ha votado a favor de este proceso de compra.**





## Parte hartzea Participación

**EHBilduk politikan biziki parte hartzera dei egiten dizuegu.** Ez botoa emanez bakarrik, aukera duzuen guztietan ardura politikoak dituztenak interpelatuz, haiei zer behar ikusten dituzuen adieraziz, batzordeetan zuzenean esku hartuz, ideiak proposatuz, kezkak adieraziz, eta abar.

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen aurrekontuetarako parte hartze prozesuaz egoki informatu, zer erataria har dezakezuen parte aztertu eta horixe egitera animatzen zaituztegu.** Norbanako gisa egin ordez, kolektibo gisa egiten baduzue, are indar handiagoa izango du zuen proposamenak; zenbat eta landuago aurkeztu ideia, arrakasta izateko aukera handiagoa izango da.

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen Prozesu hau aurrerapauso egoki bat dela uste dugu EH Bildutik, Lazkaoko Udalak orain arte izan duen jarrera pixka bat zabaltzea ekarriko duela sinistuta.**

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen Hori esanda, gehitu behar dugu aldi berean aukera galdu bezala ere ikusten dugula ariketa, bi ikuspegitatik: batetik, ez du gure parte hartzea txertatu nahi izan prozesu hau diseinatzerakoan (azken testuan esaldiren bat egokitzeko gonbita egin badigu ere, ez gara guk eskatzen dugun moduan, prozesuaren garapenean hasieratik present izan); eta bestetik, iritziak emateko eremua oso murriztailea dela iruditu zaigu: inbertsio alorrean bakarrik, eta aurrekontuaren zati minimo batera mugatzen da proposamenak egiteko gonbita. Zergatik ez eman aukera herritarrei tamaina eta hedadura guztietako proposamen eta ideia berriak konpartitzeko?**

Desde EHBildu os llamamos a participar de forma activa en política. No solo votando, sino interpellando a los que tienen responsabilidades políticas cada vez que tengáis ocasión, expresándoles las necesidades que observáis, participando directamente en las comisiones, proponiendo ideas, mostrando vuestra preocupación, etc.

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen** Por lo tanto, os animamos a informaros debidamente, ver de que forma podéis participar y hacerlo sin dudar. Si lo hacéis de forma colectiva, en lugar de hacerlo individualmente, vuestras propuestas obtendrán mayor calado; cuanto más elaborada sea la idea, mayores posibilidades de que tenga éxito.

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen** EHBildu opina que este proceso es un pequeño avance, convencidos de que traera consigo la apertura de hermetica posición que ha mantenido hasta el presente.

**Beraz, Udalak ekainean zehar deitu duen** Dicho eso, debemos añadir que, al mismo tiempo, lo vemos como una oportunidad perdida, desde dos puntos de vista: por una parte, no han querido sumar nuestra participación para diseñar el proceso (aunque nos han ofrecido cambiar alguna frase a última hora, no hemos podido participar en su completo desarrollo, como solicitamos); y por otra parte, nos ha parecido muy limitado el espacio para poder hacer aportaciones: exclusivamente en el ámbito de las inversiones y reduciéndolo a una mínima parte del presupuesto. ¿Por qué no ofrecemos a los y las ciudadanas la posibilidad de lanzar propuestas de toda índole y extensión?

# Kirol alorrerako dekalogo bat ontzen ari da udaleko kirol batzordea

## La comisión de deportes elabora un decálogo para el ámbito deportivo

Udaleko kirol-batzordea berak kudeatzen duen esparrurako dekalogo bat lantzen ari da. Dekalogo hori alor horretan sarritan sumatzen diren jarrera desagokiak zuzentzera bideratua da. Kirol askotan -eta batez ere futbolean, ausartzen gara baieztatzen- sarri ikusten dira jokoera deitoragarriak jokalarien, arduradunen, gurasoen, ikusleen eta parte hartzen duten guztien aldetik. Hori dela eta, jokoera eredugarriak zein diren nabarmenduz eta gaitzesgarriak ere seinalatuz, dekalogo bat osatzea proposatu zuen batzordean LKEk (Lazkao Kirol Elkarteak).

Kirol elkarteak proposatu, batzordekideok ondo iritzi eta dokumentu bat lantzeari ekin genion. Hasierako proposamenari gogo onez egin dizkiogu EHBilduren ekarpenak gure zinegotziaren bidez.

La comisión de deportes del ayuntamiento está elaborando un decálogo para su campo de acción. Este decálogo va dirigido a corregir actitudes inadecuadas que observamos frecuentemente en dicho ámbito. En muchos deportes -y nos atrevemos a afirmar que en el fútbol especialmente- frecuentemente se observan conductas lamentables entre los y las jugadoras, sus responsables, espectadores y demás participantes. Por ello, el LKE (Lazkao Kirol Elkarteak) propuso acordar y publicar un decálogo que destacara las conductas ejemplares y señalara las que no lo son.

Lo propuso el LKE, lo aprobamos los miembros de la comisión y empezamos a elaborar dicho documento. Con mucho gusto hemos hecho nuestras aportaciones a la propuesta inicial en nombre de EHBildu a través de nuestro concejal.



Hemen dituzue gure proposamenetako batzuk:

- Lehenik, dekalogoan jarrera desagokiak deskribatzeaz gain, haiek izanez gero zer ondorio ekar dezaketen ere jasotzea eskatu dugu.
- Dekalogoan ardura guztia kirol-talde eta klubengainean jartzen dela iruditu zaigu. Horregatik proposatu dugu kirol-taldeak ez ezik, barne hartu behar dituela dekalogo honek gurasoak, ikusleak, eta gainerako eragileak ere. Eta guztien buru, azken ardura duena, udala bera, agertu behar duela.
- Kirolean gertatzen den oro ez da kirola. Hor pertsonen arteko harremanak daude. Horregatik proposatu dugu jarrera eredugarriak sustatzea alor hauetan ere: sexu-diskriminaziorik ezean, hizkuntza-erabileran...

Hurrengo urratsa ideia horiek txertatzea egoki ikusiz gero, formulazioan asmatzea litzateke. Horretan ere prest gaude lanerako, hala eskatuz gero.

Estas han sido, entre otras, nuestras propuestas:

- En primer lugar, que el decálogo incluya además de la descripción de las conductas inaceptables, las consecuencias que pueden acarrear en caso de producirse las mismas.
- En el primer decálogo, recaía toda la responsabilidad en los equipos y clubes deportivos. Hemos propuesto que, además de ellos, debe incluir a los padres y madres, espectadores y espectadoras, y el resto de implicados e implicadas. Y entendemos que debe ser el propio ayuntamiento el último responsable de este proyecto.
- No todo lo que sucede en deporte es deporte. Ahí se relacionan personas. Por ello, hemos propuesto que también se fomenten conductas ejemplares en estos temas: en la no discriminación de género, en el uso de la lengua...

Si se contempla positivamente la posibilidad de incluir estas ideas, el próximo paso sería acertar en su formulación. Ofrecemos nuestra colaboración, si la desean.